



**AGINDUA, ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA
SAILBURUARENA,
ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA
SAILAREN DIRULAGUNTZEN
PLAN ESTRATEGIKOA (2025-
2028) ONARTZEN DUENA.**

**ORDEN, DEL CONSEJERO DE
VIVIENDA Y AGENDA URBANA,
POR LA QUE SE APRUEBA EL
PLAN ESTRATÉGICO DE
SUBVENCIONES DEL
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y AGENDA URBANA 2025-2028.**

Dirulaguntzen Araubidea
Erregulatzeko abenduaren 21eko
20/2023 Legeak 6.1 artikuluan
xedatzen duenez, aldeaz aurretiko
plan estrategiko baten bidez
planifikatu beharko dira entitateek
—besteak beste, Euskal Autonomia
Erkidegoko Administrazio
orokorrak— beren aplikazio-eremu
objektiboaren barruan ematen
dituzten dirulaguntzak.

La Ley 20/2023, de 21 de
diciembre, Reguladora del
Régimen de Subvenciones,
establece en su artículo 6.1 que la
actividad subvencional que se
desarrolle por las entidades dentro
de su ámbito objetivo de aplicación,
entre las que se encuentra la
Administración General de la
Comunidad Autónoma de Euzkadi,
deberá ser objeto de planificación
previa mediante un plan
estratégico.

Horren ondorioz, plan hau sailaren
politikak planifikatzeko tresna bat
da, eta helburu hauek ditu: merkatu
librean etxebizitza duina, egokia eta
eskuragarria izatea, eta hiri-
garapeneko eredu berri bat
sustatzea, birgaitzea, hiri-
berroneratzea eta etxebizitza-
berrikuntza bultzatzeko,
irisgarritasuna, energia-efizientzia
eta eraikuntza jasangarria hobetuz.
Helburu horiek guztiz bat datoz XIII.
Legegintzaldiko (2024-2028)
Gobernu Programan adierazitako
konpromisoekin: «ONGIZATEAN
HAZI – Ongizatea, Aurrerapena,
Eraldaketa eta Autogobernua
Euskadi Global baterako».

En consecuencia, el presente Plan
se configura como un instrumento
de planificación de las políticas del
departamento teniendo por objeto
el acceso a una vivienda digna,
adecuada y accesible a las
personas que no pueden disponer
de ella en el mercado libre, y, la
promoción de un nuevo modelo de
desarrollo urbano, que impulse la
rehabilitación, la regeneración
urbana y la innovación en vivienda,
mejorando la accesibilidad, la
eficiencia energética y la
construcción sostenible, objetivos
estos perfectamente alineados
dentro de los compromisos
expresados en el Programa de
Gobierno de la XIII Legislatura
(2024-2028) “ONGIZATEAN HAZI
– Bienestar, Progreso,
Transformación y Autogobierno
para una Euskadi global”.



Plan hau egiteko, garai bateko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren dirulaguntza-programen ebaluazioa (Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 6.3 artikuluari jarraikiz egindakoa) eta aurrekontu-helburuen betetze-mailaren ebaluazioa hartu dira abiapuntutzat.

Era berean, gobernu-programan jasota egonik sailak gauzatu beharrekoak diren interes publikoak aztertu dira, eta planaren indarraldian horretarako erabilgarri dauden baliabideen aurreikuspenekin erkatu dira. Era horretan, eraginkortasuna eta efizientzia areagotzen dira, eta gure jardun-eremuan gardentasuna indartzen.

Ohartarazi behar da, dena den, planak izaera programatikoa duela, 2024-2028 Gobernu Programaren jardunen esparru orokorraren barruan, eta, hori horrela, haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna dirulaguntza-lerroak praktikan jartzeak baldintzatzen du, egungo aurrekontu-bitartekoak kontuan izanda, besteak beste.

Era berean, argitu behar da ezen planak barnean hartzen dituela sailak parte hartzen duen sozietateei eta entitateei egiten dizkien ekarpenak; izan ere, funts-emate horiek berez dirulaguntzak ez diren arren, aurrekontu-ondorioetarako hala dira manu honen 38. artikuluari jarraikiz:

Para la elaboración del presente Plan se ha partido de la evaluación de los programas subvencionales del extinto departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, realizada de conformidad con el artículo 6.3 de la Ley Reguladora del Régimen de Subvenciones y de la evaluación del cumplimiento de objetivos presupuestarios.

Por otro lado, se han examinado los intereses públicos recogidos en el Programa de Gobierno cuya consecución compete al departamento y se ha realizado un contraste con las previsiones de recursos disponibles para ello en el periodo de vigencia del Plan. De esta forma se garantiza un incremento en los niveles de eficacia y eficiencia, así como el fortalecimiento de la transparencia en nuestro ámbito de actuación.

Ha de advertirse, en todo caso, que el Plan tiene un carácter programático encuadrado dentro del marco general de las actuaciones del Programa de Gobierno 2024-2028, por lo que su contenido no crea derechos ni obligaciones, y su efectividad queda condicionada a la puesta en práctica de las diferentes líneas de subvención, atendiendo entre otros aspectos a las disponibilidades presupuestarias existentes.

Del mismo modo, conviene aclarar que el Plan recoge aquellas aportaciones que el Departamento realiza a sociedades y entes en los que participa pues, si bien estas entregas de fondos no son propiamente subvenciones, sí lo son a efectos presupuestarios de conformidad con el artículo 38 de



1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena.

Horrenbestez, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan esleitutako eskumenak baliatuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- «Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa» onartzea. Plan hori eranskin gisa jaso da.

Bigarrena.- Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak ematen dituen dirulaguntzak plan horretan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio, eta aurrekontu nahikoa badago soilik eman ahal izango dira.

Planean aurreikusi ez den dirulaguntza-jarduera orok planaren ardatzekin eta helburuekin bat etorri beharko du, eta espedientean justifikatu beharko da ez dela planean sartu.

las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobadas por Decreto legislativo 1/2011, de 24 de mayo.

A la vista de lo expuesto, en ejercicio de las competencias atribuidas en el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno y el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos

RESUELVO:

Primero.- Aprobar el “Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana 2025-2028”, que figura como Anexo.

Segundo.- La concesión de subvenciones por parte del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana deberá ajustarse a lo establecido en dicho Plan y estará condicionada en todo caso a las disponibilidades presupuestarias existentes.

Cualquier actuación subvencional no prevista en el Plan deberá incardinarse en sus ejes y objetivos y deberá justificar en el expediente su no inclusión en el mismo. El no encaje de la nueva actuación

Aurreikusitako dirulaguntza-jarduera berria ez bazaie egokitzen aipatutako ardatzari eta helburuei, aldez aurretik, moldatu egin beharko da plan hau.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.2 artikulua arabera, ez da beharrezkoa izango dirulaguntzen arloko plangintzarik, baldin eta antolatzen diren sustapen-jarduerak Gobernu Kontseiluak onartzen dituen Jaurlaritzaren plan sektorialen edo jarduera esanguratsuen parte badira edo haietan sartzen badira, eta, betiere identifikatzen badira haien jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten helburuak, jarduerak eta adierazleak eta bermatzen bada aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzen direla.

Hirugarrena.- Urte bakoitzeko lehen sei hilekoan, plana zenbateraino bete den ebaluatuko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.3 artikulua arabera egiten den dirulaguntza-programen ebaluazioaren barruan. Egindako balorazioa oinarri gisa erabili beharko da dirulaguntzen plan estrategiko hau egokitze edo aldatzeko, hala badagokio, edo egindako aurrekontu-aurreikuspenetan doikuntzak egiteko, doikuntza horiek nabarmenak direnean.

Laugarrena.- Agindu hau kasuan kasuko bitarteko ofizialen bidez argitara dadila agintzea, eta, betiere, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari www.euskadi.eus webgunean dagokion eremuan.

subvencional prevista en los citados ejes y objetivos exigirá necesariamente, con carácter previo, la modificación del presente Plan.

En virtud del artículo 6.2. de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, no se requerirá planificación en materia subvencional cuando las actuaciones de fomento que se instrumenten formen parte o se incluyan en los planes sectoriales o actuaciones significativas del Gobierno que se aprueben por el Consejo de Gobierno, siempre y cuando se identifiquen los objetivos, las acciones e indicadores que permitan su seguimiento y evaluación y se garantice el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

Tercero.- Dentro del primer semestre de cada año, en el marco de la evaluación de programas subvencionales que se realiza de conformidad con el artículo 6.3 de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, se procederá a evaluar el cumplimiento del Plan. La valoración realizada deberá servir de base en su caso para la adaptación o modificación del presente Plan estratégico de subvenciones o para la realización de reajustes en las previsiones presupuestarias realizadas, cuando estas fueran relevantes.

Cuarto.- Ordenar que se dé publicidad a esta Orden a través de los medios oficiales que procedan y, en todo caso, mediante su inserción en el espacio que corresponde al Departamento de

Vivienda y Agenda Urbana en la
web www.euskadi.eus.

Vitoria-Gasteiz,

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua
Consejero de Vivienda y Agenda Urbana
DENIS ITXASO GONZÁLEZ
Elektronikoki sinatuta
Fdo. Electrónicamente



ERANSKINA

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILAREN 2025-2028 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.

1.- Planaren justifikazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak dirulaguntzen plan estrategiko hau egin du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Sailen jarduera orientatzeko, beren dirulaguntza-jarduera aldeztu aurretik planifikatzeko betebeharra bete dezaten, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 1/2015 zenbakiko zirkularra onartu zuen, dirulaguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoa, zeinak zenbait neurri biltzen baititu plan horiek egin eta onartzeko.

Plan honen aurrekari gisa, bi agindu hauek onartu ziren: 2021eko ekainaren 6ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2021-2024) onartzen duena, eta 2023ko apirilaren 4ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2021-2024) aldatzen duena.

2.- Aplikazio-eremua eta indarraldia.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 13. artikulua esleitzen dizkion eskumenak baliatuz Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak ematen dituen dirulaguntza guztiak daude planean (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dira, eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen).

Planaren denbora-tartea XIII. Legegintzaldia amaitzeko geratzen diren 4 aurrekontu-ekitaldietakoa da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua ezartzen duen indarraldiarekin bat etorriz.

3.- Planaren edukia

Plana zenbait ardatz estrategikoren inguruan egituratzen da. Ardatz horiek Sailaren dokumentu programatiko sektorialetan definitutako helburu eta ardatz estrategikoetatik eta XIII. Legegintzaldiko (2024-2028) «ONGIZATEAN HAZI – Ongizatea, Aurrerapena, Eraldaketa eta Autogobernua Euskadi global baterako»

gobernu-programan identifikatutako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari dagozkion konpromisoetatik ateratzen dira.

Ondoren, dirulaguntzen programak gauzatzeko aurreikusitako kostuen datu orokorrak identifikatzen ditu, laburpen gisa, sailaren egitura osatzen duten antolaketa-unitateen arabera.

Planak, azkenik, fitxa bat dauka dirulaguntza-programetarako. Fitxa horretan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak proposatutako ereduarekin bat, beste eduki batzuk txertatu dira, dirulaguntzak erregulatzen dituen araudiari jarraikiz. Hala, programa horietarako, alderdi hauek identifikatzen dira: helburuak, lortu nahi diren eraginak eta adierazleak, eraginpean dauden eskumen-esparruak, zerikusia duten plan sektorialak, xede diren sektoreak, dirulaguntzak emateko prozedura, sailaren aurrekontu-konpromisoen aurreikuspenak, eta programetarako dauden beste finantzaketa-iturri batzuk.

4.- Ardatz estrategikoak eta helburu estrategikoak identifikatzea

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bat dator Sailaren dokumentu programatiko sektorialetan jasotako konpromisoekin, batez ere, Bultzatu 2050 – Euskadiko Hiri Agendan, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean (2022-2036) eta Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean (2025-2027), bai eta XIII. Legegintzaldiko (2024-2028) «Ongizatean hazi» Gobernu Programan jasotako konpromisoekin ere, zeinei erantzuten baitie Sailaren jarduketaren eremuak, bai eta beste plan estrategiko eta sektorial batzuetan eta beste dokumentu programatiko eta deklaratibo batzuetan jasotakoekin ere.

Premisa horiekin, Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa honako ardatz estrategiko hauek aintzat hartuta egituratu da:

- ✓ Lurraldearen kudeaketa efizientea eta egokitzalea.
- ✓ Hiri inklusibo, erresiliente eta jasangarriak.
- ✓ Etxebizitza eskuratzeko eta gazteak emantzipatzeko prestazioen eta laguntzen sistema.
- ✓ Arrazoizko prezioko etxebizitzak sustatzea.
- ✓ Eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzea.
- ✓ Gobernantza- eta koordinazio-sistemak.
- ✓ Eraikuntza-sektorearen modernizazio iraunkorra eta eraldatzailea.

5.- Lurraldearen kudeaketa efizientea eta egokitzalea.

Ardatz estrategiko honetan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren lehentasunak identifikatzen dira. Lehentasun horietara bideratzen da Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzaren dirulaguntza-politika, eta honako helburu estrategiko hau du: lurralde-plangintza klima-, demografia- eta hiri-erronka berrietara egokitzea, auzoen ikuspegi jasangarriagoa barne hartuta eta garapen ekonomiko, orekatu eta jasangarria bermatuta.

Helburu horrekin, honako hauek lortu nahi dira: gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-fluxuei eta -joerei eta horiek klima-aldaketarekiko inklusiboagoa eta erresilienteagoa izango den lurralde bat eratzeke prozesuetan duten eraginari buruzko ezagutza zabaltzea; udaletako hirigintza-tresnak egiten parte hartzeke prozesuek eta tresnek berek genero-ikuspegia kontuan har dezaten lortzea; paisaia integratutako eta zenbait eskalatako koherenteak diren sareak lortzea; eta hiri-inguruko espazioetan jarduteko jarraibide batzuetara bideratzea, zenbait azterketa-kasutan ikusitako jardunbide egokiak zabalduz.

6.- Hiri inklusibo, erresiliente eta jasangarriak.

Ardatz estrategiko honetan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren lehentasunak identifikatzen dira. Lehentasun horietara bideratzen da Auzo Berroneratzearen eta Hiri Agendaren Zuzendaritzaren dirulaguntza-politika, eta honako helburu estrategiko hau du: ongizatea, jasangarritasuna eta gizarte-inklusioa sustatuko duten hiriak eta hiri-inguruneak sortzea.

Helburu horrekin, honako hauek lortu nahi dira: Bultzatu 2050 Agenda sustatzea; Euskadiko auzo kalteberak berroneratzeko ezagutza zabaltzen eta Opengela ereduak finkatzen laguntzea, bai eta hiri jasangarrien berrikuntzan eta ikerketan aurrera egitea ere; Euskadiko hiri- eta landa-inguruneetan eragina duten politika publiko guztiei koherentzia eta koordinazioa ematea, Bultzatu 2050 Hiri Agendaren esparruaren barruan, kanpoan nazioarteko erreferentzia gisa proiektatuta, agenda hori EAEko lurralde eta udalerrietan ezartzea ahalbidetuz, eta, horrela, auzoen paisaia-inpaktua eta identitate-galera saihestuz; udalei tokiko hiri-estrategiak ematea, udalerrien ekimenak, ekintzak eta politikak jasoko dituztenak, lortu nahi diren helburuak lortzeko; hiri berroneratzeari eta birgaitzeari buruzko ezagutza zabaltzea, hiri jasangarri eta inklusiboak lortzeko.

7.- Etxebizitza eskuratzeko eta gazteak emantzipatzeko prestazioen eta laguntzen sistema.

Ardatz estrategiko honetan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren lehentasunak identifikatzen dira. Lehentasun horietara bideratzen da Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren dirulaguntza-politika, eta honako helburu estrategiko hauek ditu: baliabide ekonomiko txikiagoak dituztenek arrazoizko prezioko etxebizitza izatea bermatzeko baliabideen eta prestazioen sistema garatzea, eta gazteei bizi-proiektu berri bati ekiten laguntzea, prestazioen eta laguntzen sistemaren bidez.

Helburu horrekin, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatu nahi da ekarpen ekonomikoen bidez, etxebizitzarik edo zuzkidura-bizitokirik izan ezean, eta gazteei alokairua diruz lagundu nahi zaie, emantzipatzea izan dezaten.

8.-Arrazoizko prezioko etxebizitzak sustatzea.

Ardatz estrategiko honetan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren lehentasunak identifikatzen dira. Lehentasun horietara bideratzen da Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren dirulaguntza-politika, eta honako helburu estrategiko hau du: babes publikoko bizitegi-sistema garatzea.

Helburu horrekin, ondorengo guztia lortu nahi da: beste operadore publiko eta pribatu batzuek etxebizitzak sustatu eta eskuratzea diruz lagundu nahi da errentamendu babesturako, eta sailaren parke publikoaren aldeko «*build to rent*» operatiboak sustatu; errentamendu babesturako zuzkidura-bizitokiak sustatzea diruz lagundu; despopulazioak eragindako eremu horietan alokairua sustatzeko dirulaguntzak eman, biztanleria finkatzeko eta erakartzeko; elkarlaneko edo cohousingeko etxebizitzak –bai babes publikokoak bai libreak–sustatu, Etxebizitzaren Legean jasotako baldintzetan etxebizitza erabiltzeko formula berri gisa (Andel eredua); alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera handitu («arraoizko prezioko alokairua»); baita energiaren aldetik efizienteak diren eraikinen alokairu soziala sustatu ere.

9.- Eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzea.

Ardatz estrategiko honetan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren lehentasunak identifikatzen dira. Lehentasun horietara bideratzen da Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren eta Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzaren dirulaguntza-politika, eta honako helburu estrategiko hau du: etxebizitzaren birgaitzea eta berrikuntza sustatzea, energia-efizientzia, irisgarritasuna eta eraikuntza jasangarria hobetuz.

Helburu horrekin, eraikinen elementu pribatiboak edo familia bakarreko etxebizitzak birgaitzeko esku-hartzeak egin nahi dira, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, irisgarritasuna errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko; eta birgaitze-obrak egin nahi dira, etxebizitzaren bizigarritasuna, segurtasuna eta kontserbazioa hobetzeko, eraikinen egitura eta eraikuntza egokitzeko, irisgarritasun unibertsala ziurtatzeko eta energia-kontsumoa murrizteko.

10.- Gobernantza- eta koordinazio-sistemak.

Ardatz estrategiko honetan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren lehentasunak identifikatzen dira, eta horietara bideratzen da Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren dirulaguntza-politika. Helburu estrategiko hau du: etxebizitza-politiken behaketa- eta ebaluazio-sistemak bultzatzea, etxebizitzarekin lotutako gaietan prestakuntza babesteko, erakundeen arteko lankidetzak errazteko eta bultzatzeko; eta, Legebiltzarraren aginduz, Txabarri/Sol auzoan, eta, zentzu zabalagoan, Sestaon, Sestao Berri SAK egindako hiri-berroneratzeko jarduketei finantza-babesa ematea.

11.– Eraikuntza-sektorearen modernizazio jasangarria eta eraldatzailea.

Ardatz estrategiko honetan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren lehentasunak identifikatzen dira. Lehentasun horietara bideratzen da Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzaren dirulaguntza-politika, eta honako helburu estrategiko hau du: eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea.

Helburu horrekin, arkitekturako ikerketa, eraikuntzaren sektorearen garapen teknologikoa eta etxebizitzari aplikatutako berrikuntza babestu nahi dira, eta EAEko bizitegi-eraikuntzaren sektorea eraldatzen lagundu, sektore hori sendoa, lehiakorra eta eraginkorra izan dadin.

12.- Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren dirulaguntzen programen laburpena:

Ardatz estrategikoa: Lurraldearen kudeaketa efizientea eta egokitzaila.

Helburu estrategikoa: **1. Lurralde-plangintza klima-, demografia- eta hiri-erronka berrietara egokitzea; hartara, auzoen ikuskera jasangarriagoa izango da, eta garapen ekonomiko orekatua eta jasangarria bermatuko da.**

Organo kudeatzailea: **Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza.**

Dirulaguntza-lerroa	Ekarpena Saila
Autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko unibertsitateetako eta entitate publiko eta pribatuetako ikerketa-taldeentzako dirulaguntzak, lurralde-plangintza lantzeko.	675.000,00 €
Udalentzako dirulaguntzak, genero-ikuspegia udal-plangintzan txertatzeko.	300.000,00 €
90/2014 Dekretuan identifikatuta dauden paisaiaren antolamendu-, babes- eta kudeaketa-tresnak garatzeko dirulaguntzak.	300.000,00 €
EHUko Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldearentzako (GPAC) dirulaguntza.	25.000,00 €
GUZTIRA	1.300.000,00 €

Ardatz estrategikoa: Hiri inklusibo, erresiliente eta jasangarriak.

Helburu estrategikoa: **1. Ongizatea, jasangarritasuna eta gizarte-inklusioa bultzatuko dituzten hiriak eta hiri-inguruneak sortzea.**

Organo kudeatzailea: **Auzo Berroneratzearen eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.**

Dirulaguntza-lerroa	Ekarpena Saila
NBE Habitataren eta hiri-agendako beste erakunde batzuen dirulaguntzak	700.000,00 €
Udalentzako dirulaguntzak, EAEko udalerrietan Tokiko Hiri Agenda ezartzeko.	600.000,00 €
Udalentzako eta entitate publiko edo pribatuentzako dirulaguntzak, hiri-berroneratze integrala egin dezaten.	27.300.000,00 €
Autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko unibertsitateetako eta entitate publiko eta pribatuetako ikerketa-taldeentzako dirulaguntzak, hiri-agenda lantzeko.	600.000,00 €
EHUko Arkitektura Saileko Bizi Kalitatea eta Arkitektura Taldearentzako (CAVIAR) dirulaguntza, hiri-habitataren arloko ikerlanak egiteko.	240.000,00 €
Kataluniako Unibertsitate Politeknikoarentzako dirulaguntza, hiri-habitatari buruzko azterlanak egiteko.	300.000,00 €
“Bilboko udal-etxebizitzak” organismoarentzako dirulaguntza, Otxarkoagako eraikinetan panel fotovoltaikoak jartzeko eta autokontsumo partekatuko erkidegoak sortzeko proiektu esperimentalerako.	150.000,00 €
GUZTIRA	29.890.000,00 €

Ardatz estrategikoa: Etxebizitza eskuratzeko eta gazteen emantzipaziorako prestazioen eta laguntzen sistema.

Helburu estrategikoa: **1. Baliabide- eta prestazio-sistema garatzea, baliabide ekonomiko gutxien dutenei arrazoizko prezioko etxebizitza bat eskuratzeko bermatzeko.**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.**

Dirulaguntza-lerroa	Ekarpena Saila
Alokairu librea ordaintzeko prestazioak, etxebizitzarako eskubide subjektiboa modu osagarrian gauzatzeko	292.000.000,00 €
GUZTIRA	292.000.000,00 €

Helburu estrategikoa: **2. Gazteei etxebizitza-proiektu berri bati ekiten laguntzea, prestazio-eta laguntza-sistemaren bidez.**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.**

Dirulaguntza-lerroa	Ekarpena Saila
Gaztelagun programa	106.100.000,00 €
GUZTIRA	106.100.000,00 €

Ardatz estrategikoa: Arrazoizko prezioko etxebizitzak sustatzea.

Helburu estrategikoa: **1. Babes publikoko bizitegi-sistema garatzea.**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.**

Dirulaguntza-lerroa	Ekarpena Saila
Etxebizitzak sustatzeko eta/edo eskuratzeko laguntzak, errentamendu babestuan lagatzeko (Alokairu programa barne)	32.700.000,00 €
Zuzkidura-bizitokiak sustatzeko laguntzak	18.000.000,00 €
Landa-inguruneetan alokairu babestua sustatzeko eta despoblazioaren aurka egiteko laguntzak	8.000.000,00 €
<i>Cohousing</i> -erako edo etxekidetza kolaboratiboetarako laguntzak.	12.000.000,00 €
Arrazoizko prezioko alokairurako laguntzak	64.000.000,00 €
Alokairua sustatzea, alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzea, eraikin efizienteak	106.040,00 €
Subsidioak - Etxebizitzen arloko maileguen interes-puntuak	35.150.000,00 €
GUZTIRA	169.956.040,00 €

Ardatz estrategikoa: Eraikinen eta etxebizitzen parkea birgaitzea.

Helburu estrategikoa: **1. Etxebizitzen birgaitzea eta berrikuntza sustatzea, energia-efizientzia, irisgarritasuna eta eraikuntza jasangarria hobetzeko.**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.**

Dirulaguntza-lerroa	Ekarpena Saila
1. ildo: Obra partikularretarako finantza-neurriak	30.000.000,00 €
2. ildo: Obra komunitarioetarako finantza-neurriak	130.000.000,00 €
Bizitegi-inguruneen suspertze ekonomiko eta sozialerako birgaitzea (Next Generation funtsak)	96.059.987,73 €
GUZTIRA	256.059.987,73 €

Organo kudeatzailea: **Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza**

Dirulaguntza-lerroa	Ekarpena Saila
3. ildo: Birgaitze efiziente eta integraleko obra komunitarioen jabeen erkidegoentzako laguntzak, itzuli beharrik gabekoak.	37.400.000,00 €
GUZTIRA	37.400.000,00 €

Ardatz estrategikoa: Gobernantza- eta koordinazio-sistemak.

Helburu estrategikoa: **1. Etxebizitza-politikak behatzeko eta ebaluatzeneko sistemak bultzatzea.**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.**

Dirulaguntza-lerroa	Ekarpena Saila
Dirulaguntza izenduna Sestao Berriri	4.400.000,00 €
Dirulaguntza izenduna Ekonomisten Euskal Elkargoari	200.000,00 €
Tokiko plan estrategikoak egiteko udalentsako laguntzak	7.500.000,00 €
Zenbait kalitaterako dirulaguntzak, berrikuntza, eraikuntza eta arkitektura sustatzeko	10.610.000,00 €
GUZTIRA	22.710.000,00 €

Ardatz estrategikoa: Eraikuntza-sektorearen modernizazio iraunkorra eta eraldatzailea.

Helburu estrategikoa: **1. Eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea.**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza**

Dirulaguntza-lerroa	Ekarpena Saila
Dirulaguntza izendun eta zuzenekoak, kalitatea hobetzeko eta eraikuntzan eta arkitekturan berrikuntza sustatzeko	10.610.000,00 €
Eraikal izeneko laguntza-programa.	8.800.000,00 €
GUZTIRA	19.410.000,00 €

Ardatz estrategikoa: Lurralde Plangintza. Lurraldearen kudeaketa efizientea eta egokitzaila.

Helburu estrategikoa: Lurralde-plangintza klima-, demografia- eta hiri-erronka berrietara egokitzea; hartara, auzoen ikuskera jasangarriagoa izango da, eta garapen ekonomiko orekatua eta jasangarria bermatuko da.

Organoa: Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza.

Aurrekontu-programa: 4313

Dirulaguntza-lerroa: Autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko unibertsitateetako eta entitate publiko eta pribatuetako ikerketa-taldeentzako dirulaguntzak, lurralde-plangintza lantzeko.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintzak eta adierazleak.

Helburua: Lurralde-plangintzaren arloa ikertzea, klima-, demografia-, hiri- eta lurralde-erronka berriei aurre egiteko.

Lortu nahi den ondorioa: Gehiago jakitea fluxu eta joera sozioekonomiko eta ingurumenekoei buruz eta halakoek lurralde inklusiboagoa eta klima-aldaketarekiko erresilienteagoa lortzeko prozesuetan duten eraginari buruz.

Ekintzak eta adierazleak:

Ekintzak: Zuzendaritzaren beharrekin bat datozen ikerketa-lerroak abian jartzea.

Adierazleak: Diruz lagundutako ikerketa-taldeen kopurua: 2/urte.

Eraginpeko eskumen-arloak / lotutako plan sektorialak:

Eraginpeko eskumen-arloak: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak promulgatutako lurralde-eredua definitzen duten elementu guztiak (ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; landa- eta hiri-habitata; paisaia, kultura-ondarea eta ondare naturala, eta baliabide turistikoak; baliabideen kudeaketa jasangarria; mugikortasuna eta logistika; zeharkako gaiak eta gobernantza).

Dirulaguntzen xede diren sektoreak:

Unibertsitateko ikerketa-taldeak.

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak

	2025	2026	2027	2028
Aurrekontu-kapitulua:	75.000	200.000	200.000	200.000

Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez

Dirulaguntzak emateko prozedura: Norgehiagoka eta norgehiagokarik gabea (dirulaguntza izenduna eta hitzarmena)

Ardatz estrategikoa: Lurralde Plangintza. Lurraldearen kudeaketa efizientea eta egokitzaila.

Helburu estrategikoa: Lurralde-plangintza klima-, demografia- eta hiri-erronka berrietara egokitzea; hartara, auzoen ikuskera jasangarriagoa izango da, eta garapen ekonomiko orekatua eta jasangarria bermatuko da.

Organoa: Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza.

Aurrekontu-programa: 4313

Dirulaguntza-lerroa: Udalentzako dirulaguntzak, genero-ikuspegia udal-plangintzan txertatzeko.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintzak eta adierazleak.

Helburua: Hirigintza eta genero-ikuspegia.

Lortu nahi den ondorioa: Genero-ikuspegia aintzat hartzea, bai udalen hirigintza-tresnetan, bai tresna horiek prestatzeko partaidetza-prozesuetan.

Ekintzak eta adierazleak:

Ekintzak: Genero-ikuspegia udalen hirigintza-tresnetan txertatzea.

Adierazleak:

Genero-ikuspegiaren integrazioa aztertzeke landu diren dokumentuen kopurua: 25

Eraginpeko eskumen-arloak / lotutako plan sektorialak:

- Eraginpeko eskumen-arloak: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak promulgatutako lurralde-eredua definitzen duten elementu guztiak (ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; landa- eta hiri-habitata; paisaia, kultura-ondarea eta ondare naturala, eta baliabide turistikoak; baliabideen kudeaketa jasangarria; mugikortasuna eta logistika; zeharkako gaiak eta gobernantza).
- EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana.

Dirulaguntzen xede diren sektoreak:

Euskal Autonomia Erkidegoko udalak.

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
	2025	2026	2027	2028
Aurrekontu-kapitulua:		100.000	100.000	100.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk:				
Dirulaguntzak emateko prozedura: Norgehiagoka				

Ardatz estrategikoa: Lurralde Plangintza. Lurraldearen kudeaketa efizientea eta egokitzaila.

Helburu estrategikoa: Lurralde-plangintza klima-, demografia- eta hiri-erronka berrietara egokitzea; hartara, auzoen ikuskera jasangarriagoa izango da, eta garapen ekonomiko orekatua eta jasangarria bermatuko da.

Organoa: Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza.

Aurrekontu-programa: 4313

Dirulaguntza-lerroa: 90/2014 Dekretuan identifikatuta dauden paisaiaren antolamendu-, babes- eta kudeaketa-tresnak garatzeko dirulaguntzak.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintzak eta adierazleak.

Helburua: EAEko paisaia lurraldeko sare egituratzaileetan integra dadin bultzatzea, hala nola azpiegitura berdean, ibai-korridoreetan, landa-lurzoruan, itsas aurrealdeetan, ibilbide turistikoetan edo eraikitako hiriaren inguru finkatu eta finkatugabeetan.

Lortu nahi den ondorioa: Paisaian integratutako sare koherenteak lortzea hainbat eskalatan.

Ekintzak eta adierazleak:

Ekintzak: Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuan identifikatuta dauden tresnak lantzea eta abian jartzea.

Adierazleak:

Landutako tresna kopurua: 8

Eraginpeko eskumen-arloak / lotutako plan sektorialak:

Eraginpeko eskumen-arloak: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak promulgatutako lurralde-eredua definitzen duten elementu guztiak (ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; landa- eta hiri-habitata; paisaia, kultura-ondarea eta ondare naturala, eta baliabide turistikoak; baliabideen kudeaketa jasangarria; mugikortasuna eta logistika; zeharkako gaiak eta gobernantza).

Dirulaguntzen xede diren sektoreak:

EAEko administrazio publikoak

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak

	2025	2026	2027	2028
Aurrekontu-kapitulua:		100.000	100.000	100.000

Identifikatutako beste ekarpen batzuk: EZ

Dirulaguntzak emateko prozedura: Norgehiagoka

Ardatz estrategikoa: Lurralde Plangintza. Lurraldearen kudeaketa efizientea eta egokitzaila.

Helburu estrategikoa: Lurralde-plangintza klima-, demografia- eta hiri-erronka berrietara egokitzea; hartara, auzoen ikuskera jasangarriagoa izango da, eta garapen ekonomiko orekatua eta jasangarria bermatuko da.

Organoa: Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza.

Aurrekontu-programa: 4313

Dirulaguntza-lerroa: EHUKo Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldearentzako (GPAC) dirulaguntza.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintzak eta adierazleak.

Helburua: EHUKo GPAC taldearekin kultura-paisaiari eta ondareari buruzko jarduera analitikoa eta dibulgatzailea egitea.

Lortu nahi den ondorioa: Hiri-periferiako espazioetan esku hartzeko jarraibideak bideratzea, aztertu diren kasuei esker ikasitako jardunbide onak zabalduz.

Ekintzak eta adierazleak:

Ekintzak: Aztertu diren mota askotako kasuen gidaliburu bat argitaratzea, eta hura garatzeko proposamenak egitea.

Adierazleak:

Prestatutako gidaliburu kopurua: Jardunbide onen eta zehaztapenen dokumentu bat: paperean inprimatua eta Zuzendaritzaren webgunean argitaratua.

Eraginpeko eskumen-arloak / lotutako plan sektorialak:

Eraginpeko eskumen-arloak: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak promulgatutako lurralde-eredua definitzen duten elementu guztiak (ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; landa- eta hiri-habitata; paisaia, kultura-ondarea eta ondare naturala, eta baliabide turistikoak; baliabideen kudeaketa jasangarria; mugikortasuna eta logistika; zeharkako gaiak eta gobernantza).

Dirulaguntzen xede diren sektoreak:

UNESCOren Kultur Paisaiak eta Ondarea katedrarekin zerikusia duten adituen edo unibertsitateen ikerketa-taldeak.

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak

	2025	2026	2027	2028
Aurrekontu-kapitulua:	25.000			

Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez

Dirulaguntzak emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna / Zuzeneko dirulaguntza

Ardatz estrategikoak:

- **Hiri Agenda: Hiri inklusibo, erresiliente eta jasangarriak.**

Helburu estrategikoak:

- Ongizatea, jasangarritasuna eta gizarte-inklusioa bultzatuko dituzten hiriak eta hiri-inguruneak sortzea.

Organoa:

- Auzo Berroneratzearen eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

Aurrekontu-programa: 5414

Dirulaguntza-lerroa: NBE Habitat eta gobernantzarako beste entitate batzuentzako dirulaguntzak, Bultzatu 2050 Euskadiko hiri-agenda ezartzeko edo lurralde- eta hiri-behatokia garatzeko.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintzak eta adierazleak.

Helburua: Euskadiko hiri-agenda ezartzea, 2030 Agendaren 11. garapen jasangarrirako helburua garatzeko; horretarako, agenda ebaluatzea eta haren jarraipena egitea ahalbidetuko dituen gobernantza-eredua eta lurralde- eta hiri-behatokia landuko dira.

Lortu nahi den ondorioa: Euskadiko hiri- eta landa-inguruneetan eragina duten politika publiko guztiei koherentzia eta koordinazioa ematea, Bultzatu 2050 Hiri Agendaren esparruan, kanpoan erreferentzia gisa proiektatuta nazioartekoa.

BULTZATU 2050 Euskadiren Hiri Agenda EAEko lurralde eta udalerrietan ezar dadin ahalbidetzea. Auzoek beren nortasuna ez galtzea eta paisaia-inpakturik ez egotea.

Ekintzak eta adierazleak:

Ekintzak: EAEko Hiri Agenda garatzea. Bultzatu 2050.

Adierazleak:

- Hiri Agendaren ezarpenari buruzko jarraipen- eta ebaluazio-txostenak: 3
- Estatuko eta nazioarteko foroetan parte hartzea: 4

Eraginpeko eskumen-arloak / lotutako plan sektorialak:

Eraginpeko eskumen-arloak:

- Hiri jasangarrien berrikuntza eta ikerketa.

Lotutako plan sektorialak:

- Bultzatu 2050 Hiri Agenda.

Dirulaguntzen xede diren sektoreak:

NBE Habitat eta gobernantzarako beste entitate batzuentzako dirulaguntzak, Bultzatu 2050 Euskadiko hiri-agenda ezartzeko edo lurralde- eta hiri-behatokia garatzeko.

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
Aurrekontu-kapitulua:	2025	2026	2027	2028
	100.000	200.000	200.000	200.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Dirulaguntzak emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna.				

Ardatz estrategikoa: Hiri Agenda. Hiri inklusibo, erresiliente eta jasangarriak.				
Helburu estrategikoa: Ongizatea, jasangarritasuna eta gizarte-inklusioa bultzatuko dituzten hiriak eta hiri-inguruneak sortzea.				
Organoa: Auzo Berroneratzearen eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.				
Aurrekontu-programa: 4313				
Dirulaguntza-lerroa: Udalentzako dirulaguntzak, EAEko udalerrietan Tokiko Hiri Agenda ezartzeko.				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintzak eta adierazleak.				
<u>Helburua:</u> EAEko udalerrietan tokiko hiri-agendak garatzea. <u>Lortu nahi den ondorioa:</u> Udalei tokiko hiri-estrategiak ematea, hiri jasangarrien berrikuntzan eta ikerketan aurrera egin dezaten; estrategia horiek udalerrien ekimenak, ekintzak eta politikak bilduko dituzte. <u>Ekintzak eta adierazleak:</u> Ekintzak: Lehiaketa bidezko dirulaguntzetarako deia egitea urtero, Tokiko Hiri Agenda ezartzeko. Adierazleak: Garatutako tokiko hiri-agenden kopurua: 4/urte.				
Eraginpeko eskumen-arloak / lotutako plan sektorialak:				
Eraginpeko eskumen-arloak: Hiri-agenda eta hiri jasangarrien berrikuntza eta ikerketa.				
Dirulaguntzen xede diren sektoreak:				
Euskal Autonomia Erkidegoko udalak.				
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
Aurrekontu-kapitulua:	2025	2026	2027	2028
		200.000	200.000	200.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Dirulaguntzak emateko prozedura: Norgehiagoka eta norgehiagokarik gabea (dirulaguntza izenduna eta hitzarmena)				

Ardatz estrategikoa: Hiri Agenda. Hiri inklusibo, erresiliente eta jasangarriak.

Helburu estrategikoa: Ongizatea, jasangarritasuna eta gizarte-inklusioa bultzatuko dituzten hiriak eta hiri-inguruneak sortzea.

Organoa: Auzo Berroneratzearen eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

Aurrekontu-programa: 5414

Dirulaguntza-lerroa: Autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko unibertsitateetako eta entitate publiko eta pribatuetako ikerketa-taldeentzako dirulaguntzak, hiri-agenda lantzeko.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintzak eta adierazleak.

Helburua: Bultzatu 2025 Agendaren eta Opengela ereduaren arloan ikertzea, eta hiri jasangarrien berrikuntzan eta ikerketan aurrera egitea.

Lortu nahi den ondorioa: Birgaitzeari eta hiriak berroneratzeari buruzko jakintza zabaltzea, hiriak jasangarriak eta inklusiboak izan daitezen lortzeko.

Ekintzak eta adierazleak:

Ekintzak: Zuzendaritzaren beharrekin bat datozen ikerketa-lerroak abian jartzea.

Adierazleak: Diruz lagundutako ikerketa-taldeen kopurua: 2/urte.

Eraginpeko eskumen-arloak / lotutako plan sektorialak:

Eraginpeko eskumen-arloak: Hiri-agenda eta hiri jasangarrien berrikuntza eta ikerketa.

Dirulaguntzen xede diren sektoreak:

Autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko unibertsitateetako eta entitate publiko eta pribatuetako ikerketa-taldeak, hiri-agendarekin zerikusia dutenak.

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak

	2025	2026	2027	2028
Aurrekontu-kapitulua:		200.000	200.000	200.000

Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez

Dirulaguntzak emateko prozedura: Norgehiagoka eta norgehiagokarik gabea (dirulaguntza izenduna eta hitzarmena)

Ardatz estrategikoa: Hiri Agenda. Hiri inklusibo, erresiliente eta jasangarriak.

Helburu estrategikoa: Ongizatea, jasangarritasuna eta gizarte-inklusioa bultzatuko dituzten hiriak eta hiri-inguruneak sortzea.

Organoa: Auzo Berroneratzearen eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

Aurrekontu-programa: 4313

Dirulaguntza-lerroa: Udalentzako eta entitate publiko edo pribatuentzako dirulaguntzak, hiri-berroneratze integrala egin dezaten.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintzak eta adierazleak.

Helburua: Bultzatu 2050 Agenda eta Opengela eredua bultzatzea, eta hiri jasangarrien berrikuntzan eta ikerketan aurrera egitea.

Lortu nahi den ondorioa: Opengela programa sendotzea, Euskadiko auzo zaugarriak berroneratzeko.

Ekintzak eta adierazleak:

